

## **DIRU-ITURRIAK:**

Gure bezeroen baliabide ekonomikoei begiratu eta gero, prezio errentagarri eta finko bat ezarri dugu, 99.99 eurokoa zehazki. Gure produktua ekoizteko beharrezkoa den prozesua eta lehengaiak kontuan hartuta adostu dugu prezioa eta horrekin batera, gure produktuaren errentagarritasunari begiratuz ere. Produktu honek ikasleen eta irakasleen egoera hobetuko delakoan espero dugunez, beraien eskuragarritasuna produktu honekiko erraza izatea da gure helburua.

Ordaintzeko moduak azterterako orduan, bi modu desberdin eskainiko ditugu. Aukeretako bat gure lokalean bertan ordaintzeko aukera izango litzateke, hau da, produktua erosi eta zuzenean ordaindu. Bestalde, gure produktua internazionalki saltzeko asmoa dugunez, gure webgunean erosteko aukera ere eskainiko dugu, berezo guztiek gure produktuen eskuragarritasun berdina eduki dezaten.